



euskalmendizalefederazioa

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Ohiko Batzar Orokorra

Eguna: 2018ko abenduaren 1a, larunbata

Ordua: lehen deialdia 10:00etan, eta bigarrena 10:15ean.

Lekua: Makina Erremintaren Institutua

Abenduaren 1ean, larunbatean, 10:30ean hasi da EMFren Ohiko Batzar Orokorra, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan.

EMFren lehendakaria, José Ramón Alonso, da batzarreko lehendakaria, eta EMFren idazkariak, Vicente Lópezek, egin ditu idazkari lanak. Era berean, mahaian daude Leire Salazar lehendakariordea, José Antonio Arriola diruzaina, David Alday batzordekidea, Lander Fraile batzordekidea, eta Irati Anda zuzendari teknikoa. Batzarrean da Euskal Kirol Federazioen Batasuneko abokatua ere, Juan Carlos Soto jauna.

Parte-hartzaileak:

Zuzendaritza Batzordeko idazkariak ozen irakurri du Ohiko Batzarreko parte-hartzaileen zerrenda, eta 50 klub eta 5 kirolari daude bertaratuta edo ordezkaturik; 97 boto dira posible guztira.

Klubak: * Araba: Altzania M.K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkartea, San Ignazio Kluba

* Bizkaia: Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Baskonia M.T., Bilbao Alpino Kluba, Deustuko Menditarrak, Egunsentia M.T., Enkarterri M.T., Etorkezuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M. T., Goiko Mendi, Gorlizko M.E., Itxartu Taldea, Juventus K.E., Munarrikolanda, Turista Barakaldo, Untza MT

* Gipuzkoa: Aitzgorri M.E., Aizkardi M.E., Aloña Mendi K.E., Besaide M.E., Burumendi M.E., Alpino Uzturre Elkartea, Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Mendi-zaleak M.E., Antiguoko Mendizaleen Elkartea, Murruxio M.E., Pagoeta M.E., Morkaiko M.E., Talaimendi M.E., Zاراia K.E.

Kirolariak: José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar.

Parte hartu dutenek batzarreko kideen % 29,26 ordezkatzeko dute.

Lehendakariak aztergai izango diren gaiak irakurri ditu, GAI-ZERRENDAren arabera:

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio
2. Zuzendaritza Batzordeko kide berria berrestea
3. Helvetia aseguru-etxearen proposamenak aztertzea eta onartzea, hala badagokio.
4. 2019ko federazio-lizentzien prezioetarako proposamena aztertzea eta onartzea, hala badagokio
5. Eusko Jaurlaritzaren Agindua
6. 2019ko jardueren egutegiaren aurkezpena
7. Lehendakartzaren txostena
8. Galderak eta eskariak

Hauek ere azaldu ditu:

- Gai-zerrendan zenbait puntu sartzeko proposamena txertatzeko BMFk egindako eskaria (EMFren Batzarreko kideen % 5ek baino gehiagok sinatua)
- FEDMEren bidez, Trail Running diziplinaren esleipenaren inguruan sortutako arazoari buruzko informazioa du bere esku, bai eta autonomia-erkidego zenbaitek Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Zentralean (Madril) errekurtsioa aurkezteko hartutako erabakiari buruzkoa ere; izan ere, Atletismoko Federazioari esleitzeak gure interesei nabarmen eragingo lieke, mendi-lasterketen esparruan. Errekurtsio hori aurkeztu ahal izateko, beharrezkoa da zenbait izapide aurreratzea, prozesu horrek balioa izan dezan. Prozesurako, lehenengo, abokatu eta prokuradorea behar dira. Prokuradorearen kasurako, ahalordeak eman beharko dizkiogu. Bigarrenik, Federazioaren Batzarrean hartutako akordioa behar da, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko erabakia jasotzen duena. Epea abenduaren 4an amaitzen da.
- Gai-zerrendaren puntu bakoitzean esku hartzeko prozedura azaldu du: puntu bakoitzean, nor esku hartuko duten galdetuko da, eta oholtzara igoko dira, batzarrari hitz egiteko.
- Euskal Kirol Federazioen Batasuneko abokatu aurkeztu du, Juan Carlos Soto, eta bere burua aurkeztu du hark. Lehen esku-hartzean, federazioen artean akordio bat egiteko gomendioa egin du, Legeak jasotzen duena jaso arren. BMFren eskaria kontuan hartuta, Bizkaiko Kirol Federazioen Batasuneko abokatuarekin, Javier Cortazarrekin, hitz egin du, eta egun bat zehaztu dute beste lurralde-federazioetako ordezkariekin hitz egiteko, horrela hobeto funtziona dezaten eta zerbitzu hobeak eman ditzaten. Lurralde-federazioetako lehendakariekin adostasunera iritsi ondoren, BMFren proposameneko 1. puntua atzeratu egin da, beste bilera batean aztertzeko, estatutuak berritzea eskatzen baitu, eta horretarako, dagokion prozedura egin beharko baita.

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio

✓ *Abokatu*

Batzarrak ez du aktak onartzeko eskumenik, testua eta hark izandako aldaketak kontrastatu ditzake soilik. Ikuspegi praktikotik, igorri egin behar da zuzena den ikusteko, eta zuzen transkribatu ez dena, idazketa, esaterako, zuzendu behar da. Ezin dira blokeatu jada onartuta dauden akordioak. Haren iritziz, aktak zehatzegiak dira, eta soilik proposatzen dena islatu behar dute, bai eta bozketa eta hartutako akordioa ere.

ESKU-HARTZEAK

– Gailurra kluba

9. orrialdean, 5. puntuan (“EMFren aseguruari kontsultak”), Gailurraren ordezkariaren esku-hartzea adierazten den tokian, testu bat txertatzeko eskatu du honek, eta testua irakurtzera jo du: testuan, asfaltatutako errepideetako istripuen estaldurari buruz paragrafo bat polizan txertatzeari egin dio aipua, eta paragrafo hori ez zegoen aurreko polizetan.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Aktan, batzarreko lehendakariak sinestamenduez hitz egiten duen tokian, BMFk Hauteskunde Batzordeari klubaren zerrenda aurkeztu ziola jaso dadin nahi du, eta baita Batzarrean dituen kideen sinestamenduak ere.

Bigarrenik, dio udalak ez direla harremanetan jarri EMFekin segurtasunari buruzko hitzaldiak eskatzeko, baizik eta EMF 20 udali zuzendu zaiela, haren esanetan DAEMekiko akordioan jasotzen denez.

✓ *EMFren lehendakaria*

Bai Gailurrako ordezkariari eta bai Victorri eskatu die mezu elektronikoko bat igortzeko, aktan jasota geratzea nahi duten testuarekin.

DAEMekiko akordioari eta udalekiko kolaborazioari buruzko ñabardurei dagokienez, gai-zerrendako “lehendakaritzaren txostena” puntuan lantzen dela gai hori aurreratu du.

2. Zuzendaritza Batzordeko kide berria berrestea

EMFren lehendakariak kide berria aurkeztu du, Lander Fraile, eta haren zereginak askotariko lehiaketekin lotutakoak aurrera eramatea eta dagozkien sailkapenak egitea direla dio.

Inork esku hartu nahi duen galdetu du, eta bozketa egitera jo da.

BOZKETA:

BAI: 87 boto, % 89,69ko ehunekoa.

Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkarte, San Ignacio Kluba, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Egunsentia M. T., Etorkizuna M. T., Galarreta, Ganguren A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Goiko Mendi, Gorlizko M.E., Juventus K.E. , Munarrikolanda, Untza MT, Gipuzkoa: Aitzgorri M.E., Aizkardi M.E., Aloña Mendi K.E., Besaide M.E., Burumendi M.E., Alpino Uzturre Elkarte, Itsastarrak M.T., Goierri K. E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkarte, Mendi-zaleak M.E., Antiguoko Mendizaleen Elkarte, Murruxio M.E., Pagoeta M.E., Morkaiko M.E., Talaimendi M.E., Zeraia K.E., José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga

EZ: 0 boto, % 00,00ko ehunekoa.

Abstentzioa: 10 boto, % 10,31ko ehunekoa.

Altzania M. K., Austarri M. T., Bilbao Alpino Kluba, Enkarterri M.E., Arroletza M.T., Itxartu Taldea, Turista Barakaldo, Víctor M. Vivar

Guztira: 97 boto

Kide berria berretsi da.

3. Helvetia aseguru-etxearen proposamenak aztertzea eta onartzea, hala badagokio

EMFren lehendakariak 2017ko istripuei buruzko datuez hitz egin du, eta proposatutako berrikuntzak deskribatu ditu (gainkosturik gabeko klausula berriak federatuentzat, lortutako indize “onargarrien” ondorioz):

- Orientazioko ibilaldiak, ibilketa nordikoa eta elur-erraketak: konpainiak onartu du hiri-inguruneak aztertzea eta onartzea, lehiaketak direnean; antolatzaileak eta istripua izan duenak proban izena emanda duela erakutsi beharko dute, bai eta istripua izan den puntua ere. Horrez gain, haurren eta gazteen kategorietan, hiri-lurzoruan garatzen diren orientazioko proba guztiak barnean hartuko dira, jarduera sustatzeko xedez (emaitzen arabera, ez da baztertu gerora helduak ere barnean hartzea).
- Mendi-lasterketak: estalduraren barnean txertatuko dira bero-kolpeak eta hipotermiak ere.
- Iparraldeko egoiliarrak: polizaren ordainketari dagokionez, Hegoaldekoen tratu bera izatea negoziatu da (ez lukete beharko munduari dagokion estaldura), bai eta laguntza medikoa Frantzian ez bazik eta Espainian izatea ere.
- Iparraldeko mendiak: 2019tik aurrera, Ehun Mendien Katalogoan dauden Iparraldeko mendiak (eranskinak ez) ez dute beharko Pirinioetako estaldurara hedatzea.
- Erantzukizun zibilaren estaldura handitu da.
- Aukera berri bat eskaintzeko eskatu zaie, EUROPA: A plana orain arte bezalakoa da, eta B planak EUROPA ere hartzen du.

Aseguru-etxeari maiz egiten zaizkion galderei eta erantzunei buruzko dokumentua, irailean klubei aurkeztu zitzaiena, kontuan hartuta, klubek egindako bi ekarpen bildu dira:

- 1- Gazteiz klubak sei hilabeteko lizentzien prezioa proposatu zuen.
- 2- Durangoko Alpino Tabira taldeak hainbanaketa proposatu zuen, alta emandako dataren arabera.

Bi proposamenak aztertu dira aseguru-etxearekin, eta Europa barnean har dezakeen estaldurarekin lotuta emango diren azalpenekin zerikusia dute erantzunek. Federazioaren aldetik, aukera horiek konplikazioak ekarriko lituzkete aurrekontuak egiteko orduan, eta kaos txiki bat ere eragin dezakete, mundu guztiak azken ordura arte itzarongo bailuke data esanguratsuenetan federatzeko (zubiak, Aste Santua, oporrak); eta izapideak garaiz ez egitea eragin dezake horrek. Aseguru-etxearen ikuspegitik arriskutsua litzateke,

istripuak izateko arrisku bera baitago, gastu berarekin (kasuren batzuetan zertxobait aurrezteak urte hasieran federatzen direnen gorakada handia ekarriko luke).

ESKU-HARTZEAK

– Gailurra kluba

Proposamenei dagokienez, deskontua txikia da Europarako; beste poliza batzuetan, aldea eurotan antzekoa da, baina estaldurak hobeak dira CAFen.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Poztu egin da Orientazioko Ibilbideen eta Ibilketa Nordikoaren esparruengatik, eta Europa aukera ere izan nahi du, baina ez baldintza horietan.

Galdetu du ea zergatik ez diren helduak sartzen asfalto gaineko orientazioko probetan.

✓ *EMFren lehendakaria*

Euskal Kirol Federazioen Batasunak ekainaren 26an egindako batzarrean, aseguru-etxeak bateratzeko ahalegina egitea eskatu zitzairen federazioei; baina esperientziak erakutsi digu kirol bakoitzak bere ezaugarriak dituela, eta neurri bat behar duela.

Beste federazio batzuen prezioei erreparatzerakoan, datuekin egin behar dela dio, batez, ere, istripuei buruzko datuekin.

Gogorarazi du, estaldurari dagokionez, federatzen den lurraldean egin behar dela (Andaluziako Federazioaren aseguruak ere kudeatzen ditu Helvetiak, eta, istripuen kasuan, lehen kontsulta Andaluzian egin behar da).

FEDMEko lehendakariak Madrilgo Federazioko lehendakariari eskatu zion autonomia-erkidegoetako federazio guztiekin negoziatzen hasteaz ardua zedin, aseguru komun bat ezartzeko: horretan ari dira elkarrekin, nahiz eta proposatutako konpainiak zenbait arazo izan dituen istripu jakin batzuetan.

Ibilketa nordikoari dagokionez, zehaztu du lehiaketetako ibilbideetan murrizketak daudela hiri-inguruneen ehunekoari dagokionez.

BOZKETA: A aukera bozkatuko da (A aukera orain arte bezala jarraitzea da, eta B aukera, Europa duena); beraz, EZ bozkatzeak B aukerari baiezkkoa ematea adierazten duela ulertuko da.

BAI: 84 boto, % 86,60

Altzania M.K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkartea, San Ignacio Kluba, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Baskonia M.T., Bilbao Alpino Kluba, Egunsentia M.T., Enkarterri M.E., Etorkizuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Goigain M.T., Gorlizko M.E., Itxartu Taldea, Juventus K.E., Munarrikolanda, Turista Barakaldo, Untza MT, Gipuzkoa: Aitzgorri M.E., Aizkardi M.E., Aloña Mendi K.E., Alpino Uzturre M.T., Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Mendi-zaleak M.E., Antiguoko Mendizaleen Elkartea, Murruxio M.E., Morkaiko M.E., Talaimendi M.E., Zاراia K.E., José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar

EZ: 8 boto, % 8,25

Goiko Mendi, Besaide M.E., Burumendi M.E., Pagoeta M.E.

Abstentzioa: 5 boto, % 5,15

Deustuko Menditarrak, Ganzabal M.T.

Guztira: 97 boto

Aseguru-estaldura berriak onartu dira, bai eta egungo aukerekin jarraitzea ere (Estatua, Pirinioak, Mundua)

4. 2019ko Federazio Lizentzien prezioetarako proposamenak aztertzea eta onartzea, hala badagokio

Aurreko puntuan, baztertu egin da B aukera, Europa aukera barnean hartzen zuena. Igoera bakarra osasun-arloko KPIri dagokiona da (uztailean negoziatu zen, eta, gerora, gehitu egin da eta Helvetia konpainiak hartu du bere gain desbideratzeari dagokiona).

ESKU-HARTZEAK:

- Gailurra kluba

Zuzendaritza Batzordeari eskatu dio asfaltoaren kontu horrekin jarraitzeko, ulertzen du mesfidati agertzea hiri-inguruneen kasuan, baina lehentasunezkoa iruditzen zaie onartzea; Andaluziakoan, ez da salbuespenik ageri.

BOZKETA:

BAI: 88 boto, % 90,72

Araba: Altzania M.K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkartea, San Ignacio Kluba, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Bilbao Alpino Kluba, Egunsentia M.T., Enkarterri M.E., Etorkizuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Goiko Mendi, Gorlizko M.E., Itxartu Taldea, Juventus K.E., Munarrikolanda, Untza M.T., Aitzgorri M.E., Aizkardi M.E., Aloña Mendi K.E., Besaide M.E., Burumendi M.E., Alpino Uzturre Elkartea, Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Mendi-zaleak M.E., Antiguoko Mendizaleen Elkartea, Murrukixo M.E., Pagoeta M.E., Morkaiko M.E., Talaimendi M.E., Zaraia K.E., José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar

EZ: 0 boto, % 00,00

Abstentzioa: 9 boto, % 9,28

Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Gailurra M.T., Turista Barakaldo

Guztira: 97 boto

2019ko Federazio Lizentzien prezioak onartu dira.

5. Eusko Jaurlaritzaren Agindua

Zuzendaritza Batzordeko diruzainak agur egin die batzarrean bildutakoei, eta *Eusko Jaurlaritzaren Aginduaren* testua irakurri du:

Erakundearen 2018ko ekitaldiko aurrekontua, Batzar Nagusiak onartua, VI. eranskineko kontabilitate-ereduaren arabera.

Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiak izendatu duen organoak aurrekontua aurkez dezake. Aurrekontua Batzar Nagusiak berretsiko du.

Oraingo honetan ez dira 2019 ekitaldirako aurrekontuak aurkeztu, beste urteetan hala egin bada ere.

EMFren Zuzendaritza Batzordeak hartu du erabakia, ahalik eta zehatzen egiteko xedez, eta, horregatik, 2018ko ekitaldiaren itxierako datu errealak eskura izan arte itxarongo da.

Orain arte, urteko bigarren batzarrean onartzen ziren, Eusko Jaurlaritzaren ohiko diru-laguntzak eskatzeko nahitaezko betebeharrak zenez, baina, azken aginduak, 2018koak, dioenaren arabera, gaur egun tarte handiagoa dugu horretarako.

Horregatik guztiagatik, berriro dei egingo zaizue urtarrilean edo otsailean, bai 2019ko aurrekontuak eta bai 2018ko ekitaldiko itxiera onartzeko.

Ez da izan ESKU-HARTZERIK

6. 2019ko jardueren egutegiaren aurkezpena

Zuzendari teknikoak, Irati Andak, 2019ko jardueren egutegiaren errebasoa egin du.

Iraupen luzeko ibilbideetan, 2019ko jardueren egutegian eskaintza gutxiago datoz, 18 oraingoz (eta 19 ibilbide ziurrenik).

ESKU-HARTZEAK:

- Goikomendi kluba

Zuzendari teknikoak ez ditu jarduerak gaztelaniaz azaldu, eta mesedez gaztelaniaz ere errebasatzeko eskatu du.

- ✓ *Zuzendari teknikoa*

Behin-behinekora da, eta jardueren, daten eta lehiaketan arabera egin du errebasoa.

Eskian, antolatzaile berberak.

Eskaladan, 2020ko Tokioko Olinpiar Jokoek ezarriko dute ereduak, eta hiru modalitateetan garatuko dira lehiaketak, urte honetan bezala, lehiaketan formatu olinpiarrean; abiadura, boulder eta zailtasun-modalitateetan.

Boulder Liga beste lurraldeetara ere hedatu nahi litzateke, Bizkaia eta Gipuzkoara.

Mendi-lasterketetan, bada modalitate berri bat: Snowrunning (elurretako lasterketak).

Lehiaketatik kanpoko jardueretan, orientazioko ibilaldia abenduaren 2an litzateke, igandean.

Segurtasunaren arloan, orientazioko jarduerak berri bat proposatu du 2019rako.

- ✓ *EMFren lehendakaria*

Gogora ekarri du behin-behinekora dela, eta hurrengo batzarrean bozkatuko dela.

- Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Prestakuntza-jardueraren batzuen falta sumatu du.

7. Lehendakaritzaren txostena

- DBLE / DBEO: datuen babesarekin lotutako legeak betetzeko orduan lurralde bakoitzak egindako ibilbide desberdinak kontuan hartuta, eta Bizkaiko klubek jada zabalduko ereduetan oinarrituta (lurralde horretan ari dira gehien eta hobekien betetzen esparru horretako betebeharrak), federatu bakoitzak federazioan alta eman nahi duen bakoitzean bere klubean bete behar lituzkeen ereduak bateratzeko ideia planteatu du lehendakariak. Ildo horretatik, EKFB Federatuen Batasunari (elkarte horri atxikita dago EMF) aholkuak emateaz arduratzen den enpresa berriak, SEGURdades enpresak, batzarkideei igorritako dokumentuak gainbegiratu ditu. Lurralde-federazio eta klub bakoitzari egokitzeko aukera ematen duten dokumentuak dira, eta Word formatuan igorriko dira; izapideak errazago egin ahal izateko, klubek webguneetan eskuragarri jartzea gomendatzen da. Adingabeen kasuan, dokumentu horiek bi gurasoen oniritzia izatea gomendatzen da.
- Prebentzioaren eta mendiko segurtasunaren esparruko prestakuntza-saioak: hasierako aurreikuspena 20koa zen, baina plangintza oro gaituta da, eta, azkenean, 29 saio izango dira; horietako 12tan, udal eta klubekin lankidetzan eta harremanetan jarrita egin dira saioak. Federatuen parte-hartzeari buruzko datuak eman dira, sexuen arabera edota adinaren arabera bereizita, etab.
- Abiadura-murrua: apirilko batzarrak oniritzia eman ondoren, bi aukera interesgarrienak zehatz-mehatz aztertu ziren.
 1. Fadura kasuan, Basque Team / Goi Errendimenduko Zentroko kirolarien egoitzaren abantailak, unibertsitate publikoaren gertutasuna eta Bilboko metroaren sarea kontuan hartzekoak dira, baina instalazioa babestuko lukeen bisera bat egin beharrik murrua egiteko onartutako aurrekontua aise gaituko luke.
 2. Bigarren aukera Gasteizko Hegoalde gizarte-etxea da, eta kontuan hartzekoak dira, kokapenari eta ostatuari dagokienez, Gasteizek eskaintzen dituen abantaila guztiak; gainera, kasu honetan, onartutako aurrekontuen barnean legoke gauzatzeak sortuko lukeen kostuaren prezioa ere. Proiektuak badu jada oniritzia, eta dokumentu batean federatuentzat berorren erabilerak izango lituzkeen abantailak biltzea falta da.

ESKU-HARTZEAK:

- San Ignacio Basotxo Mendi Kluba.
Gasteizko Udaleko gatazkari eta rokodromoaren ustiapenerako kontratari dagokienez, kontrata esleitzen zaion enpresak murrua erabiltzeko aukera izatea aztertu al duen EMFk galdetu du.
- Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar
Prestakuntzari dagokionez, udala izan da klubari nahi al zuen galdetu diona.
- Gailurra kluba

Datuen babesari dagokionez, EMFk dokumentuak esteka baten bidez helaraziko dituen modu berean, aseguru-etxearekin aukera bera izatea eskatu du.

Adingabeei dagokienez, zer lege-eskakizun bete behar da adingabe bat federatzeko? Bi gurasoen baimena? EMFk uko egingo dio adingabea federatzeari bi baimenak ez baditu? EMFtik bideratuko da sinadura bakarrarekin?

✓ *Abokatuak*

Lehen batean, sen ona aplikatu behar da, eta bi gurasoei eskatu behar zaie baimena.

Jardueretarako, dibortzio-epaian zaindari gisa ageri denaren baimena behar da.

Irudietarako, bi gurasoen baimena behar da, kontu handiz ibili behar da webguneetako argazkiekin.

EMFk federatuta dagoela ukatu dezake, bi gurasoen baimena izatea eskatzen duelako legeak.

Baimen bakarra badago, eskatzailearen adierazpena ere aurkeztu behar litzateke, sinadura bakarra zergatik dagoen azalduz.

✓ *Zuzendari teknikoa*

Abiadura-murrua kontrataren enpresatik apartekoa da, eta ez da haren eta udalaren arteko harremanari lotuta egongo.

Gai-zerrendako puntu berriak; ordena aldatzea proposatu du abokatuak, eta Ezohiko Batzarrera eramatea.

8. Galderak eta eskariak

ESKU-HARTZEAK:

– Baskonia kluba

Kluben zer ehuneko dago ordezkatuta batzar honetan?

– Besaide kluba

Euskaraz esku hartu du.

– Aitzgorri kluba

EMFren xedeetako bat ingurumena babestea da. Esparru hori sendotu behar luke EMFk. Mehatxuak daude, pinuen kasuan fumigazioekin eta horiek mendietan izan duten inpaktuarekin gertatu bezala. EMFri jarrera bat hartzeko eskatu dio, adibidez, webgunearen eta Pyrenaica aldizkariaren bidez, eta arauak zehazteko, batez ere babestutako inguruetan.

– Gailurra kluba

Seguruari egindako kontsultei buruz klubei igorritako dokumentuari dagokionez, batzarrean daudenei eskatu die alerta meteorologiko bat izanda mendizale bat mendira joateaz agertutako argitalpenei erreparatzeko; delitugileztat jotzen dute gutxi gorabehera, eta gaizki jokatzeko duela diote. Hori buruz ohartarazi nahi ditu bertaratuak, alerta meteorologiko bat egoteak ez duelako esan nahi mendira irtetea arduragabekeria denik: elurra iragarri denean, adibidez, eragina izan dezake inguruak (Pagasarri versus Pirineoak), eta gauza bera esan daiteke tenperatura altuen kasuan (kostaldeko ibiliak eta barnealdekoak); eta horrek ez luke aseguru-etxeak erreskatea ez ordaintzeko aitzakia izan behar.

✓ *Lehendakaria*

Aseguruari buruzko proposamena igorri zaie klub guztiei.

Ingurumenarekin lotutako gaiak Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaizkio EMFtik, eta lurralde-federazioetatik, berriz, diputazioei; aurrez, zuzendaritza-batzordean landuko dira.

– Goiko Mendi kluba

Besaide klubak euskaraz egindako esku-hartzea itzul dezaten eskatu du mesedez.

✓ *Zuzendari teknikoa*

Besaide klubeko ordezkariaren esku-hartzea itzuli du, eta euskaraz hitz egiteko eskubidea duela adierazi du hark.

– Goiko Mendi kluba

Hainbat arrazoigatik euskaraz hitz egiten denean ulertzen ez duten pertsonak daude, eta guztientzat irtenbide bat aurkitzea proposatu du

Segurtasunaren esparruko prestakuntzari dagokionez, galdetu du ea zergatik eskaintzen zaien udalei, eta ez klubei. Logikoa iruditzen zaio prestakuntza klubenez eskaintzea, herri osoari zuzentzen baitiote horiek gero.

✓ *Lehendakaria*

2018an, DAEMekin egindako hitzarmena errespetatu da, eta berria lantzerakoan aukera horiek aintzat hartzeko asmoa dago.

✓ *Idazkaria*

Batzarrean ordezkaturako klubenez egin den galderari erantzun dio: kopuru osoaren % 29,26. Araba, % 15,00 – Bizkaia, % 44,93 – Gipuzkoa, % 22,78

Ohiko batzarra amaitutzat eman da, 12:45ean.



Sinadura: EMFren idazkaria
VICENTE LÓPEZ



EMFren lehendakariak ontzat emana
JOSÉ RAMÓN ALONSO